



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko maiatzaren 11

42. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Jabeldura, kultur ekintzaren arloko politika orokorrari buruzkoa, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak egin (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da uztailearen 11ko 4/1988 Foru Legean eta martxoaren 25eko 22/2003 Foru Legean ezarritakoa bete dezan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lan kontratazioaren arloko zenbait neurri har ditzan. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jabetza horizontalaren gaineko jarduketei buruzko legediaren aldaketa susta dezan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lanbide heziketaren arloan estrategia orokor bat abiaraz dezan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).
- Adierazpen instituzionala, Europaren Eguna dela eta. Eledunen Batzarrak onetsia (11. or.).
- Adierazpen instituzionala, Yamiled Giraldoren familiari babesa adierazteko. Eledunen Batzarrak onetsia (12. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, Nafarroako Gobernuaren krisiaren kontrako planean liburuak erosteko laguntzak sartu ez izanari buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egin (13. or.).
- Galdera, jakiteko nola egingen dien aurre Nafarroako Gobernuak otsaileko uholdeek kaltetutako udalen eskakizunei, Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (13. or.).
- Galdera, landa eremuko larrialdietako sendagileen lanpostuak esleitu ondotik Bideko Ama Birjina Ospitaleko larrialdietan sortutako egoera larriari buruzkoa, Asun Fernández de Garaialde andreak egin (14. or.).
- Galdera, gizarte-enplegu babestuari buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egin (15. or.).

- Galdera, jakiteko ea noiz izanen duen prest Nafarroako Gobernuak Azpiegiturei, Garraioei eta Komunikazioei buruzko Plan Estrategikoa, José María Vázquez Royo jaunak egina (15. or.).
- Galdera, gobernuaren kontrol eraginkor eta egiazkoa egite aldera parlamentariei informazioa emateko bete-beharra betetzearen arloko politika orokorrari buruzkoa, Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak egina (16. or.).
- Galdera, 2002-2009 urteetarako Nafarroako Errepideei buruzko II. Plan Zuzendariaren exekuzioa dela-eta Nafarroako Gobernuak egiten duen azterketari buruzkoa, Txentxo Jiménez Hervas jaunak egina (17. or.).
- Galdera, nekazari gazteen lehen instalaziorako laguntzak 2009ko aurrekontuko zer kontusaili egotziko zaizkion jakiteko, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (17. or.).
- Galdera, “Ubarmin Klinikako operazio-gelak berritzeko obrak” izeneko kontusailaren betetze mailari buruzkoa, Ana Figueras Castellano andreak egina (18. or.).
- Galdera, Tuterako Atalaya zentroaren kudeaketarako kontratu publikoaren agindu tekniko partikularren agiriri buruzkoa, Ana Figueras Castellano andreak egina (19. or.).
- Galdera, nekazaritzako lurak basoberritzera bideratzen den diruari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (20. or.).
- Galdera, oinarrizko errentaren izapidetzeari buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (20. or.).
- Galdera, oinarrizko errentaren kontusaileko azken gastuari buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (21. or.).

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **Jabeldura, kultur ekintzaren arloko politika orokorrari buruzkoa.**

### *SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko apirilaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko jabeldura, kultur ekintzaren arloko politika orokorrari buruzkoa.

**2.** Jabeldura hau Osoko Bilkuran izapidetzea.

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2009ko apirilaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **JABELDURAREN TESTUA**

Samuel Caro Sádaba, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldearen eledunaren ondokoak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 181. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, kultur ekintzaren arloko politika orokorrari buruzko jabeldura hau aurkeztu du:

Jabelduraren azalpena

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko Lege Organikoaren 44. artikuluan jasotzen denez, Nafarroaren eskumen eskusiboa da, besteak beste, “Estatuarekin koordinaturik, kulturaren gainera” (8. idatz-zatia); “historia, arte, monumentu, arkitektura, arkeologia, eta zientzia arloko ondarearen gainera ere –horrek, halere, ez ditu ezertan galaraziko Estatuak ondare hori esportazioaren eta lapurretaren aurka babesteko dituen ahalmenak–” (9. idatz-zatia); “arte ederren sustapenarekin eta irakaskuntzarekin zerikusia duten erakundeak” (11. idatz-zatia); “ikuskitzuna” (15. idatz-zatia); “irakaskuntza, kultura, arte, ongintza, laguntza eta gisako izaera duten elkarteak, beren egitekoak nagusiki Nafarroan betetzen badituzte” (19. idatz-zatia).

Urtarrilaren 24ko 335/1986 Errege Dekretuaren bidez, Nafarroako Foru Komunitatera eskualdatu ziren Estatuko administrazioaren eginkizun batzuk; hain zuzen, kulturaren, kirolen eta gizarte laguntzaren eta gizarte eta kultur sustapenaren arloetakoak. Eskualdaturiko eginkizun eta zerbitzuen artean daude ondareari, artxibo eta liburutegiari, musikaren sustapenari, zinearen sustapenari, sorkuntza literarioa bultzatzeari edota xede kulturala duten azpiegiturak sortzearen eta mantentzeari buruzkoak.

Arlo horien guztien eta aipatzen ez diren beste batzuen kudeaketa eta garapena da, oro har, gobernu baten “kultur politika” deitu daitekeena, kasu honetan, Nafarroako Gobernuarena.

Kultur ekintzak edo jarduerak izan behar du zenbait planetan zehazturiko printzipio eta xede batzuen ondorio, irizpide politiko jakin batzuekin bat datozenak, argi-iturri duten ideologiaren arabera. Soilik hitz egin daiteke kultur politikaz, kultur jarduerak eta horiek txertatzen diren proiektuak helburu haiekin bat badatoz. Kultur jardueren batuketa ez da, berez, kultur politika baten adierazle; aldiz, sarri kultur politika berariazko baten faltaren isla izaten da.

Kultura eta Turismo Departamentuaren egitura organikoan –hori izan zen Gobernuaren hautu estrategikoa 2003an–, hasierako zalantza batzuen ostean, ikus daiteke Kultura Zuzendaritza Nagusi bat eta Turismo Zuzendaritza Nagusi bat daudela, departamentuko Idazkaritza Teknikoaz gain. Kultura Zuzendaritza Nagusiaren barruan, badira zenbait zerbitzu, erabat sendotuta daudenak: Ondare Historikoaren Zerbitzua, Artxiboen eta Dokumentu Ondarearen Zerbitzua, Museoen Zerbitzua, Liburutegiaren Zerbitzua eta Kultur Ekintza Zerbitzua. Horietaz gain, bada Sustapen, Edizio eta Teknologia Berrien Atala, zuzenean Kultura Zuzendaritza Nagusiaren mendean dagoena.

Kultur Ekintza Zerbitzua da lan-zama handienetakoa duena; izan ere, bere gain hartzen ditu

programa artistiko gehienak, kultur arloko azpiegiturekin zerikusia duten deialdi eta laguntzez gain. Nafarroako kultur ekintzak aldaketa kuantitatibo eta kualitatibo asko izan ditu 1986an kultur arloko transferentziak eskualdatu zirenetik iragan diren 20 urteotan. Halaber, ahalegin handia egin da azpiegituren arloan eta aurrerapen handia egin da kultur etxe eta gune eszenikoen sareari dagokionez.

Hala ere, aurrerapen horrek gehiago dirudi foru erkidegoan izandako gobernu desberdinen ekitzen inertziaren ondorio, ongi pentsatu eta zehaztutako prozesu estrategiko baten eragina baino. Harrigarria da azken bi hamarkadetan Kulturaren Liburu Zuririk ez egin izana, eta harrigarria da ere ez izatea plan estrategiko bat, auziaren egoera aztertu, helburuak zehaztu, xedeak ezarri eta lanerako aurrekontu-mugak aurreikusteko. Eta jokamolde hori, zeina XX. mendeko 80etan aitzindaritzat eta 90etan berrikuntzat joko baitzen, gaur egun, XXI. mendeko lehen hamarkada amaitzean, ezinbestekoa da nolabaiteko modernotasunaren bidetik jotzeko, beste zenbait hirik, eskualdek, diputaziok, erkidegok eta Espainiako Gobernuak Kultura Ministerioak berak egin duten moduan.

Legegintzaldiko lehen zatia amaitzera doanean, nabarmen interesgarriak diren zenbait plan partzial jarri dira abian, zeinetan gure taldeak ekimen garrantzitsua izan baitu –INACC abian jartzea, Arte Garaikidea Sustatzeko Plana, Kultur Turismoari buruzko Plan Zuzendaria, Donejakue Bidearen Departamentuarterko Plan Orokorra, Nafarroako Kultur Ondareari buruzko Hirurteko Plana, besteak beste–, eta, dirudienez, iritsi da unea kultur ekintzaren arloko politikaren azterketa sakona egiteko, sektorea ebaluatzeko, aztertzeko eta bultzatzeko beharrezkoak jotzen diren neurriak ezartze aldera.

Sektoreak ekimen hori eskatzen du, ikusten duelako urtetik urtera errepikatzen direla zenbait programa, jarduera, deialdi eta funtzionatzeko modu, zerikusi gutxi dutenak sortu ziren garaiarekin eta hausnarketa sakona eta lasaia eskatzen dutenak, Nafarroako kultur ekintzak XXI. mendeko bigarren hamarkadan jorratu beharreko bide berri-  
ei buruz.

Hori guztia oharkabean igaro da, beharbada, Nafarroan azken hiru bosturtekoetan bizi izan duguna bezalako oparoaldi ekonomikoan, baina behar-beharrezkoa da gaur egungo krisialdian; izan ere, kultur politikak, oro har, horren eragina pairatuko du bereziki. Ezinezkoa bada baliabide gehiago izatea, beharrezkoa da ahalegin handiagoa egitea eskuragarri dauden baliabideei ahalik eta etekin handiena ateratzeko. Ezin bada gehiago inbertitu, hobeto kudeatu ahal eta behar da, bista-  
koa denez.

Hausnarketa horiek guztiak kontuan hartuta, komenigarria litzateke jakitea eta eztabaidatzea Gobernuaren ere bat ote datorren kultur ekintzaren arloko politika orokorrari buruzko ikuspegi horrekin, zenbait ekintza abian jartze aldera, metaturiko zabarkeriekin amaitzeko, dauden arazoak konpontzeko eta abian diren ekimen egokiak bultzatzeko.

Hori dela eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak musikaren arloko politika orokorrari buruzko jabeldura hau aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari, jakiteko zer helburu lortu nahi diren, zer jarduera-ildo dauden abian eta zein den Gobernuaren jardueraren balantzea Foru Gobernuaren kultur politikaren testuinguru orokorrean.

Iruñean, 2009ko apirilaren 29an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuia premiatzen da uztailaren 11ko 4/1988 Foru Legean eta martxoaren 25eko 22/2003 Foru Legean ezarritakoa bete dezan.**

### **NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko apirilaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuia premiatzen baita uztailaren 11ko 4/1988 Foru Legean eta martxoaren 25eko 22/2003 Foru Legean ezarritakoa bete dezan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko apirilaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Legebiltzarraren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Nafarroako Oztopo Fisiko eta Zentzumenezkoei buruzko uztailaren 11ko 4/1988 Foru Legeak arautzen du zer irizpideri jarraitu behar zaion ezgaitasunak dauzkaten pertsonak behar bezala integratzea lortzeko; horretarako, zehaztu egiten du oztopo arkitektoniko eta zentzumenezkoak kentzeko beharrezkoa den araudia. Horrez gain, martxoaren 25eko 22/2003 Foru Legeak asmozat zeukan aipaturiko uztailaren 11ko 4/1988 Foru Legeko alderdi batzuk zehaztu eta garatzea.

Ildo horretan, Foru Administrazioak berak araudi horiek betetzeari buruz duen erantzukizuna ezin saihestuzkoa da; agerikoa den lege-lotespenarengatik ez ezik, aipaturiko legeek Nafarroako Gobernuia eta bere departamentuak premiatzen dituztelako zenbait neurri abiaraztera.

Zehazki, uztailaren 11ko 4/1988 Foru Legeko 15. artikulua xedatzen du ezen, aurreko artikulua aipatzen dituen onurak eskuragarri izan daitezkeen Nafarroako organismo eta erakunde publiko-

entzat, ezinbesteko betebeharra izanen dela jarduketa-plan bat prestatu eta onestea, beren espazio libre eta jendeak erabiltzekoak diren eraikin eta lokalak aipaturiko foru legeko eta bere erregelamenduetako xedapen eta arau orokorretara egokitzeko. Gainera, azpimarratzen du jarduketa-plan horien gutxieneko osagaiak izanen direla egokitzeko moduan dauden espazio, eraikin eta lokalen inbentario edo zerrenda bat, jarduketei ekiteko lehentasunen hurrenkera, eta jarduketa-planaren exekuzio faseak. Kontua da talde honek jakin ahal izan duenez, aipaturiko planak ez direla oraindik ere abiarazi.

Ildo honetan bertan, martxoaren 25eko 22/2003 Foru Legeko lehenbiziko xedapen gehigarriak hiru hilabeteko epea ezartzen du, Nafarroako Gobernuiko departamentuek, zeinek bere eskumenera esparruan, txosten bana presta dezaten, haien menpeko eraikin, zerbitzu eta instalazioen egokitzapen planak, Oztopo Fisiko eta Zentzumenezkoei buruzko uztailaren 11ko 4/1988 Foru Legeari jarraituz eginak, noraino bete diren ebaluatzeko.

Horrez gain, adierazitako arauak honakoa ezartzen du: "Foru lege honek indarra hartu eta hiru hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuiko departamentuek jarduketa plan bat aurkeztuko dute Foru Biltzarrean, bertan finkatuz herritar guztien irisgarritasun eskubidearen inguruan egun dauden gabeziak ahal den eperik laburrenean zuzentzeko behar diren neurriak, egutegia eta diru zenbatekoak".

Beraz, irisgarritasunari buruzko legedi zabala egon arren, gutxienez ere hiru urraketa gertatzen dira, azaldu berri dugun bezalaxe.

1988ko legeko 19. artikulua halaber ezartzen zuen oztopo fisiko eta zentzumenezkoen departamentuarterko batzorde bat eratuko zela, Lan eta Gizarte Ongizate Departamentuari atxikia. Batzorde horrek 2005eko azaroaren 11n egin zuen bere azken bilera. Ikuspegi horretatik, agerikoa da azkartasun gutxiko funtzionamendua duela departamentuarterko batzorde horrek; hain zuzen, bere garrantzia aintzat harturik, oinarrikoa den batzorde horrek.

Hori guztia dela eta, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ahalik eta epe laburrenean bete dadin uztailaren 11ko 4/1988 Foru Legeak eta martxoaren 25eko 22/2003 Foru Legeak xedaturikoa; bereziki, lehenbizi aipaturiko lege horretako 15. artikuluari eta bigarren legeko lehen xedapen gehigarriari dagokienez.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du erregelamendu bidez aldizkakotasun zehatz bat finka dezan Oztopo Fisiko eta Zentzumenezkoen Departamentuarterko Batzorde-

aren bileretarako deialdiak egiteko. Aldizkakotasun horrek sei hilabete behinekoa izan beharko luke, gutxienez ere.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hiru hilabete epean jarduketa-plan bat aurkez dezan, non finkatuko baitira beharrezkoak diren neurri, egutegi eta diru-zenbaketak, gaur egun herritar guztien irisgarritasun-eskubidearen inguruan dauden gabeziak ahal den eperik laburrenean zuzentzeko, martxoaren 25eko 22/2003 Foru Legeko xedapen gehigarriak zehazten duen moduan.

Iruñean, 2009ko apirilaren 27an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lan kontratazioaren arloko zenbait neurri har ditzan.**

### *IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko apirilaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen baitu lan kontratazioaren arloko zenbait neurri har ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko apirilaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, 2009ko apirilaren 23an eginiko Osoko Bilkuran eztabaidaturiko jabelduraren ondorioz, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

### Zioen azalpena

Nafarroako Parlamentuak eginiko azken Osoko Bilkuran eztabaidagai izan zen langabeziak gure erkidegoan duen egoera orokorra eta Nafarroako Gobernuak gizarte eta lan arloko politika berriak ezartzeko beharra.

Parlamentu-taldeek azaldutako argudioen artean, nabarmentzekoak dira behin-behineko kontratazioaren egoera –% 90era iristen da ia–, sei hilabetetik gorako behin-behineko kontratazioei dirulaguntza publikoak ematea –sindikatuak ere horren aurka azaldu dira–, langabeziaren igoera –langabezia erregistratuaren urte arteko tasa % 62,43 igo da–, Nafarroako langabetuen egoera –% 30ek ez dute langabezi saririk jasotzen; langabezi saria jasotzeko eskubidea dutenetatik, % 25ek 421 euro jasotzen dituzte hilean, langabezi-ko sorospen gisa–, eta enplegu-erregulazioko espedienteen egoera –azken hiru hilabeteetan, Nafarroan hiru enplegu-erregulazioko espediente aurkezten dira, lanegun bakoitzeko–.

Halaber, 2008ko azken hiruhilekoko Populazio Aktiboaren Inkestaren arabera, Nafarroan 4.648 familia daude, zeinetan familia-unitateko kide guztiak lanik gabe baitaude, lan egiteko egoeran egonda ere. Eta, are larriagoa dena, badira 2.242 familia, non familiako kide batek ere ez baitu dirusarrerarik jasotzen, ez lan egiteagatik, ez pen-

tsioa edo langabeziako prestazioa edo sorospena jasotzeagatik.

Iragan apirilaren 24an argitaratu zen 2009ko lehen hiruhilekoari dagokion Populazio Aktiboaren Inkesta, eta bertatik ondorio garbia atera daiteke: Nafarroan langabezia etengabe doa gora –% 29 gehiago aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Espainian langabeziak gora gehien egin duen sei-garren erkidegoa da, eta langabezia tasak % 10,4 egiten du–. 7.300 langabetu gehiago daude, eta okupazioa 5.300 pertsona jaitsi da 2009ko lehen hiruhilekoan.

Datu horiek erakusten dute langabeziaren ondorioak pairatzen dituzten familien egoera sozialak okerrera egin duela; izan ere, 5.500 pertsona daude urtebete baino gehiago daramatenak lanik aurkitu ezinik.

Lan egoera larri honi gehitzen zaio gure erkidegoan berankortasun hipotekarioa izugarri igo dela –esaten denez, langabezia da berandutza-indize horren arrazoi nagusia–, eta, finantzen sektoreak aurreikusten duenez, antzeko erritmoan handitzen jarraituko du 2009an eta 2010ean. Datu horien arabera, bada arriskua hipoteken exekuzioen eta familia ahulenen etxe-utzarazpenen kopuruak gora egiteko, eta, horren ondorioz, familia horien bazterketa arriskua larritu egiten litzateke.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentua ez dago ados Nafarroako Gobernuak sei hilabete baino gehiago irauten duten lan kontratu behin-behinekoak diruz laguntzearekin.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du kontratazioa laguntzeko neurriak susta ditzan. Neurri horien onuradunak langileak izanen dira, bereziki langabezia areagotzearen ondorioz ahulen diren taldeak, eta eskubide sozialak sortzeko baliagarriak izanen dira.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du kontratazioaren babesa sardezan klaseko sindikatuekiko hitzarmenen bidezko adostasun eta elkarrizketa sozialaren esparruan.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, oinarritzko errentaz gain, gizarte eta lan arloko neurriak ezar ditzan, halako moduz non langabezian dauden pertsonak prestakuntza-ibilbideak egin ahalko dituzten berriro laneratzeko helburuarekin.

Iruñean, 2009ko apirilaren 27an

Eleduna Ion Erro Armendáriz

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jabetza horizontalaren gaineko jarduketei buruzko legediaren aldaketa susta dezan.**

### ***NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU***

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko apirilaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita jabetza horizontalaren gaineko jarduketei buruzko legediaren aldaketa susta dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko apirilaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**MOZIOAREN TESTUA**

Patxi Zabaleta Zabaletak eta Maiorga Ramírez Errok, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentariak, talde horren eledun gisa eta Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikulua eta hurrengo babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

**Zioen azalpena**

Gure erkidegoko eremu askotan, herrietako alde zaharretan nagusiki, irisgarritasunaren eta mugikortasunaren arloko zailtasun nabarmenak dituzten etxebizitzak daude.

Lege neurriak hartu behar dira auzo-komunitateei laguntze aldera, egokitu daitezen irisgarritasun eta mugikortasun beharrezkoak, bereziki mugikortasun mugatua duten pertsona adinekoentzat.

Lurzoruaren Legea indarrean sartu zenetik, zenbait autonomia erkidego hasi dira jabetza hori-

zontalari buruzko lege aldaketak egiten, auzo-komunitateek sustatutako jarduerak errazte aldera, ukitutako higiezin jabeen kontrako jarrera dela-eta zailtasunak dituzten kasuetan.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lehenbailehen susta ditzan jabetza horizontalaren arloan beharrezkoak diren aldaketak, halako moduz non komunitate-erakinen irisgarritasuna hobetzeko, pertsona guztientzat eta, bereziki, adina edo bestelako arrazoiak tarteko mugikortasuna murriztuta edo mugatuta dutenentzat, baldintzarik diren jarduerak ahalbidetu, erraztu eta arinduko diren.

Iruñean, 2009ko apirilaren 28an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

---

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lanbide heziketaren arloan estrategia orokor bat abiaraz dezan.**

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko apirilaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lanbide heziketaren arloan estrategia orokor bat abiaraz dezan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko apirilaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**MOZIOAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozioa aurkeztu

du, Legebiltzarren Osoko Bilkuran eztabaida eta onets dadin. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lanbide Heziketaren arloko estrategia orokor bat abian jar dezan.

**Zioen azalpena**

Edozein gizarteren aurrerabideak lotura estua du giza kapitalaren garapenarekin, eta, hori, era berean, gizartearen heziketa- eta prestakuntza-aukeren menean dago.

Prestakuntzari buruz egin diren azterlan eta txostenek erakusten dutenez, Lanbide Heziketak bultzada bat behar du, prestakuntza mota horri prestigioa emateko eta profesionalen prestakuntza egokitzeko horiek txertatuta dauden gizartearen ekoizpen-beharrizanetara.

Nafarroan bada Lanbide Heziketako zentroen sare sendo bat, eta hezkuntza etapa horrek garrantzi handia izan du gure gizartearen garapen ekonomikorako. Hala ere, desoreka nabarmena antzematen da unibertsitateko tituludunen eta Lanbide Heziketako tituludunen artean, Europar Batasun osoan gertatzen ez den bezala.



Azterlan desberdinek erakusten dutenez, laneratze tasa altuaren arrazoia izan daiteke, besteak beste, "kualifikazio gutxiko eskulanaren ugaritasunari eta maila ertaineko kualifikazioen eskasia; hori dela eta, Lanbide Heziketak emaitza onak ditu laneratzeari dagokionez".

Finean, Lanbide Heziketak bultzada ausarta behar du, ekoizpen sektorearen eta prestakuntzaren arloaren artean beharrezkoa den harremana eta koordinazioa lantzeko, bai eta prestakuntza mota horri prestigioa emanen dioten jarduerak ere, maila ertaineko kualifikazioak dituzten pertsonen kopurua hazi eta kualifikaziorik gabeko pertsonena murrizte aldera.

Bizi osoan prestakuntzaren beharra izateak, hezkuntza sistemaren etapa desberdinetan sartzeko ezarri den den malgutasunak, unibertsitatean sartzeko araudi berria eta hasierako prestakuntzari, lanerako prestakuntzari eta prestakuntza etengabeari dagokienez dauden beharriaz eskatzen dute arreta handiagoz aztertzea Nafarroako Lanbide Heziketaren sistema hobetu dezaketen zenbait proposamen.

Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du, Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Lanbide Heziketaren arloko estrategia orokor bat abian jar dezan. Estrategia horretan ondokoak jasoko dira:

1. Beharrezkoa da Lanbide Heziketaren estrategia bat abian jartzea, enpresen, berrikuntzaren eta ekoizpenaren sarearekin koordinatuta. Estrategia horren ezaugarria izan beharko litzateke balio erantsi handia ematea foru erkidegoaren hazkunderako eta etorkizunerako garrantzitsuak diren sektoreei, hala nola osasun arloa, biomedikuntza, energia berriztagarriak, turismoa, nekazaritzako elikagaien industria, pertsonen laguntza, automozioa eta ingurumena ulertuta prestakuntzak eta berrikuntzak erabateko zentzua dutela ingurune sektorialarekin eta tokikoarekin harremana dutenean; izan ere, horrela, prestakuntzaren arloaren eta enpresaren arteko lankidetzak, osagarritasuna eta transferentzia errazten da, betiere begirada gizartean jarrita.

2. Norabide horretan lan egiteko, ondoko neurriak hartuko dira:

2.1.- "Campus teknologiko profesionalak" diseinatzea Lanbide Heziketako zentroyen inguruan, Nafarroako eskualde guztietan. Horiek izanen dira berrikuntzaren, prestakuntzaren eta garapenaren

egiazko eragileak. Prestakuntza gune horietan ahaleginak eginen dira enpresen eta Lanbide Heziketako zentroyen arteko harremanak lantzen, ondoko helburuak erdieste aldera:

- Prestakuntza egokitzea berrikuntzaren eta ekoizpenaren beharriaz, ikasleentzako eta langileentzako prestakuntza malgu eta arin baten bidez, gune horiek erreferentziazkoak izan daitezkeen lanbide-garapenaren esparru zehatzetan.

- Hitzarmenak egitea enpresen eta Lanbide Heziketako zentroyen instalazioak eta ekipamendurak baliatzeko, sektore desberdinetako sinergiak aprobetxatzeko, teknologiaren eta berrikuntzaren transferentzia ahalbidetzeko, gizarte-garapenaren ondorioz sortzen diren erronketara egokitzeko eta horiei erantzun egokia emateko, prestakuntzaren edukiak eguneratzeko, irakasleen etengabeko prestakuntza bultzatzeko eta ikasleek etengabeko harremana izan dezaten lantokiarekin.

- Enplegu-erregulazioko espedienteen eraginpean dauden langileen prestakuntza sustatzea, kualifikazio eta gaitasun profesional berriak eskura ditzaten, bai lan berean jarraitzeko bai lan berrietan hasteko.

2.2. - Hasierako jarduera bat abian jartzea Lizarraldean eta ondokoak jasoko dituen plan estrategiko bat garatzea:

- Campus teknologiko bat sortzea, non sartuko baitira Lizarrako Lanbide Heziketako Institutua, Ega BHIa, Los Arcosko L'Urederra zentro teknologikoa, San Adriango CNTA, Fundación, Investigación, Desarrollo e Innovación Medioambiental ingumen zentroa (FIDIMA) eta Lizarrako arte grafiko eta ikusizkoen zentro teknologikoa, eta Lizarrako Merindadeko Enpresen Elkartearen laguntza izanen du.

- Lanbide Heziketako Institutua sendotzen aurrera egitea, Lanbide Heziketako Zentro Integratua izan dadin, eta aztertzea lanbide heziketako institutu berri bat eraikitzea garapen teknologikoaren eta enpresen gunean, errazte aldera ekoizpenaren, berrikuntzaren eta garapenaren arloarekiko harremanak.

2.3. Jarduera zehatzak Lanbide Heziketako familietan.

a.- Osasunaren arloa:

- Iruñeko Sanitaria BHIari ematea osasun arloko lanbide heziketaren Estatuko erreferentzia-zentroyen ziurtagiria, osasunaren arloa foru erkidegoko garapen-faktore garrantzitsu gisa sendotzen laguntzeko, maila handiko osasun zerbitzua mantentzeko ezinbestekoak diren profesional kualifika-

tuen prestakuntzaren bidez, eta arlo horretako berrikuntza eta ikerketa sustatzeko.

- Osasun arloko lanbide heziketan prestakuntza ziklo berriak ezartzeko aukera aztertzea, gure osasun sistemaren gaur egungo beharrezkoak eta, batez ere, etorkizuneko erantzute aldera. Prozesu horri ekiteko, Erradioterapiako Goi Mailako Zikloa ezarriko da.

- Osasun arloko Lanbide Heziketako zentro berri bat eraikitzea, kontuan hartuta erreferentzia-zentro gisa duen eginkizuna, eta beharrezkoak diren esparruak sortzea prestakuntza jarduerak, teorikoak eta praktikoak, modu egokian garatzeko, gaur egungo beharrezkoak ez ezik, lanbide sektore horrek izanen duen etorkizunari ere begira.

- Hitzarmen bat sinatzea Hezkuntza Departamentuaren eta Osasun Departamentuaren artean, diagnosiaren eta tratamendu medikoaren aurrerabide azkarra dela-eta, ospitaletatik eta osasun zentroetatik kentzen diren tresnak Sanitaria Lanbide Heziketako Institutuan jar daitezten eta etorkizuneko profesionalen prestakuntzarako erabil daitezten.

#### b.- Kultura eta turismoaren arloa.

- Ostalaritza eta turismoaren lanbide arloko prestakuntza zikloak ezartzeko aukera aztertzea eta baloratzea, ulertuta turismoarekin –kalitateko turismoarekin– zerikusia duten jarduerak garapensektore garrantzitsua direla Nafarroarako eta naturgune eta kulturune interesgarriak bultzatzeko. Horietako ziklo batzuk izan daitezke “Ostalaritza arloko zerbitzu-prozesuen kudeaketa,” “Turisten eta bisitarien gida” edo “Tokiko turismoaren sustapen eta bisitariari informazioa ematea.”

#### c.- Energia berriztagarriak.

- Energia Berriztagarrien Zentro Nazionalarekin (CENER) eta Energia berriztagarrien arloko prestakuntzarako zentro nazionalarekin (CENIFER) batera, Nafarroak badu aukera Energia Berriztagarrien Nazioarteko Agentziaren (IRENA) egoitza ere izateko. Agentzia horren xedea da energia berriztagarriak neurri handian erabil daitezten sustatzea, herrialde industrializatuak aholku ematea eta energia berriztagarrien bidezko hornikuntza handitzea erraztuko duten jarduerak diseinatzea. Horrenbestez, energia berriztagarrien sektoreko erreferentzia bihurtzea ildo estrategikoa da teknologia berrien garapenerako eta ezagutza, berrikuntza eta teknologia gizarteratzeko.

#### d.- Ingurumena.

- Industria-hondakinen birziklatzearekin, bererabilpenarekin eta tratamenduarekin zerikusia

duten prestakuntza zikloak ezartzea eta teknologia zentroen ikerketei (FIDIMA) laguntza ematea.

#### e.- Zerbitzu soziosanitarioak.

- Mendekotasunari buruzko Legearen eta Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen ondorioz eta pertsonen biziraupen luzeagoaren eta gizartearen bilakaera dela-eta sortu diren arazoaren ondoriozko beharrezko inguruko zerbitzuen sektoreak arreta soziosanitarioaren, gizarte eta hezkuntza arretaren eta arreta soziokulturalaren berariazko arloei buruzko prestakuntza duten pertsonak behar ditu. Halaber, gorantz doan sektore hori ezinbestekoa da herritar guztien bizi kalitate egokia ziurtatzeko.

#### f.- Nekazaritzako elikagaien industria.

- Lanbide arlo horretako prestakuntza bultzatzea eta elikadura osasuntsuarekin, nutrizioarekin eta kalitatezko lehengaiekin lotzea. Nekazaritzako elikagaien industriaren garapenak lotura izan behar du garapen logistikoarekin, eta, horretaz gain, ildo berriak jorratu behar ditu, hala nola nekazaritzako elikagaien industria osasunarekin, nutrizioarekin eta turismoarekin lotzea.

2.4. Lanbide Heziketaren berezitasunetara egokitutako beka eta laguntza politika diseinatzea.

- Beharrezkoak diren beka eta laguntzak ematea, ikasle guztiek Lanbide Heziketako ikasketak Lantokiko Prestakuntzako modulua egin ahal izan ditzaten, Nafarroako edozein tokitan bizi direla ere, eta arreta berezia eskaintzea Lanbide Heziketako zentroetatik eta lantokiko prestakuntza egiten den enpresetatik urrun bizitzeagatik zailtasunak dituzten pertsonen.

2. 5.- Araudian jasotako Lanbide Heziketaren eskaintza desberdinak arintasunez garatzea, ahalik eta hobekien ziurtatze aldera herritar guztiek lanbide-gaitasunak eta -kualifikazioak eskuratzeko aukera izanen duela, herritarren garapen pertsonala, profesionala eta soziala errazteko, hezkuntza bizitza osoan zehar eskuratzen dela kontuan hartuta.

2. 6.- Kanpaina bat abian jartzea, lehenbizi arlo ofizialean eta ondoren pribatuan, lanpostuen eta lan profilen izendapena terminologia berrira egokitze aldera –LHko teknikaria eta LHko goi mailako teknikaria– eta gaur egungo Lanbide Heziketari buruzko araudiarekin bat ez datorren terminologia –LH I eta LH II– alde batera uztea.

2. 7.- Pixkanaka aurrera egitea atzerriko hizkuntzetan ematen diren moduluen ezarpenean edo atzerriko hizkuntzetan emandako prestakuntzan; izan ere, arlo hori araudian ezartzen den moduan, hezkuntza eskaintzaren alderdi lehentasuneko

da eta errazten du ikasleen, irakasleen eta langileen mugikortasuna Europar Batasunean.

2. 8.- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak indartzea Lanbide Heziketako zentro guz-

tietan, bide egokia baitira prestakuntzarako eta lanbide-gaitasunak eta -kualifikazioak eskuratzeko.

Iruñean, 2009ko apirilaren 26an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

## Adierazpen instituzionala, Europaren Eguna dela eta.

### ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2009ko apirilaren 30ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1.- Nafarroako Parlamentuak bat egiten du heldu den maiatzaren 9an ospatuko den Europaren Egunarekin, zeina giza duintasunaren errespetuaren, askatasunaren, berdintasunaren eta giza eskubideen balioekiko konpromisoaren ikurra baita. Balio horiek gure espazio politiko eta juridikoaren zati dira eta bizi izan den aldi oparoena ekarri dute Nafarroako, Espainiako eta Europako herritar guztientzat.

2.- Nafarroako Parlamentuak aitortzen du azken 50 urteotan Europar Batasunak europar herritartasunaren eredu bat sortu duela, oinarritzen dena aniztasuna, bazterketa eza, justizia, elkartasuna eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna ezaugarritzat dituzten gizarteetan. Baina Europar Batasuna eraikitzen ari den proiektu bat da, eta herritarren eta erakundeen lan jarraitu eta etengabea behar du.

Nafarroako Parlamentuak uste du globalizazioak eta munduan dauden arazoak dakartzaten erronkek eskatzen dutela elkartasunez jokatu duen Europar Batasun bat eskatzen dutela, konponbideak jarriko dituen, munduari irekia eta konpromiso sendoa hartuko duena herrialde ahulenekin, gosearen aurkako borrokarekin, analfabetismoaren aurkakoarekin eta aldaketa klimatiko-

ren aurkako borrokarekin. Europako herritarrak garen aldetik, lan egin behar dugu lortzen aldera bakearekin, segurtasunarekin, demokraziaren zabalkuntzarekin, askatasunarekin eta berdintasunarekin hartutako konpromisoa Europaren indarraren erroa izan dadin, bai eta gure mugetatik harago ere.

4.- Nafarroako Parlamentuak bat egiten du ospakizun honekin eta berresten du bere babes emanen duela eta lan egingen duela europar herritartasunaren proiektu bat eraikitzeko, zeinak ziurtatuko baititu guztientzako aukerak, justizia soziala, integrazio kosmopolita eta elkartasuna. Asko dira Europako erakundeetan hartzen diren eta Foru Komunitatean eragin nabarmena duten erabakiak. Hori dela eta, garrantzitsua da Europar Batasunarekin dugun konpromisoa geure egitea; izan ere, guztion ahalegin partekatua da Europako proiektua sendotzeko bermerik onena.

5.- Nafarroako Parlamentuak bere egiten ditu Schumanek 1950eko Adierazpenean erabilitako hitzak: “Europa ez da behingoan eraikiko, baina, halaber, ez da multzo bat: lehenik eta behin, egitatezko elkartasuna sortuko duten ekintza zehatzei esker eraikiko da.” Eta horixe da Nafarroako Parlamentuak erakundeei eta Nafarroako herritarrei egiten diegun gonbita Europaren Egunean.”

Iruñean, 2009ko apirilaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## **Adierazpen instituzionala, Yamiled Giraldoen familiari babesa adierazteko.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2009ko apirilaren 30ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1.- Nafarroako Parlamentuak bere babesa eta elkartasuna adierazi nahi dio Yamiled Giraldoen familiari, eta, aldi berean, edozein motatako indarkeriaren erabateko gaitzespena adierazten du.

2.- Nafarroako Parlamentuak bere konpromisoa agertzen du gizartearen aurrean, gizonezkoen eta emakumezkoen artean beharrezkoa den berdintasuna eta elkarrekiko errespetua edozein harremanen oinarri izan dadin eskatzen jarraitzeko.

3.- Aitortzen dugu pertsona baten aurkako atentatu hau gizarte osoaren arazoa dela; ez da soilik emakumeen arazoa, ez eta soilik pertsona etorkinen arazoa ere. Guztion arazoa da, eta konponbidetik are gertuago egonen gara zenbat eta pertsona gehiago izan eskubide berdintasunaren alde batzen garenok.

4.- Konpromisoa hartzen dugu eskura ditugun baliabide guztiak jartzeko arriskuan sentitzen diren emakume guztiak behar duten babesa izan dezaten, bai eta beste ezein emakumek inoiz eraso gehiagorik jasan behar ez izateko behar direnak ere.

5.- Pertsona guztiak gonbidatzen ditugu parte har dezaten erailketa hau gaitzesteko eta Yamiled Giraldoen familiari eta lagunei elkartasuna adierazteko egiten diren ekitaldi guztietan parte har dezaten.

6.- Gizarteari eskatzen diogu indarkeria ekin-tzen berri izanez gero horiek sala ditzan, hori baita dugun modu bakarra indarkeriaren biktimei laguntzeko eta gizarte bidezkoago bat eraikitzeko, zeinetan desberdina izatea ez baita arriskutzat hartu, aberasgarritzat baizik.”

Iruñean, 2009ko apirilaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

## **Galdera, Nafarroako Gobernuaren krisiaren kontrako planean liburuak erosteko laguntzak sartu ez izanari buruzkoa.**

*PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko apirilaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuaren krisiaren kontrako planean liburuak erosteko laguntzak sartu ez izanari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko apirilaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra, Legebiltzarreko erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Kultura kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak ez ditu sartu Krisiari Aurre Egiteko Planean liburuak erosten laguntzeko jarduketak, herritarren artean irakurketa sustatze aldera eta kultura-industria –esate baterako liburu saltzaileak, idazleak, banatzaileak, garraio-lariak, argitaratzaileak eta egileak– babeste aldera. Zergatik?

Iruñean, 2009ko apirilaren 27an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

---

## **Galdera, jakiteko nola egingen dien aurre Nafarroako Gobernuak otsaileko uholdeek kaltetutako udalen eskakizunei.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko apirilaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko nola egingen dien aurre Nafarroako Gobernuak otsaileko uholdeek kaltetutako udalen eskakizunei.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko apirilaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Iragan otsailaren 10ean eta 11n uholdeak izan ziren Nafarroako zenbait tokitan, eta kalte larriak eragin zituzten zenbait herritan. Herri horietako udal arduradunak, ardura handiz, kalteak kuantifi-

katu dituzte, eta Nafarroako Gobernuaren erantzunaren zain daude.

Horri buruz, parlamentari honek ondokoa jakin nahi du:

Nola egingen die aurre Nafarroako Gobernuak otsaileko uholdeek kaltetutako udalen eskakizunei?

Iruñean, 2009ko apirilaren 28an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

---

**Galdera, landa eremuko larrialdietako sendagileen lanpostuak esleitu ondotik Bideko Ama Birjina Ospitaleko larrialdietan sortutako egoera larriari buruzkoa.**

*ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko apirilaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde andreak aurkeztutako galdera, landa eremuko larrialdietako sendagileen lanpostuak esleitu ondotik Bideko Ama Birjina Ospitaleko larrialdietan sortutako egoera larriari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko apirilaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Noiz eta nola zuzenduko du zure departamentuak landa eremuko larrialdietako sendagileen lanpostuak esleitu ondotik eta, horren ondorioz, larrialdietako plantilla nabarmen jaitsi izanaren ondotik Bideko Ama Birjina Ospitaleko larrialdietan sortutako egoera larria?

Iruñean, 2009ko apirilaren 28an

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde

## **Galdera, gizarte-enplegu babestuari buruzkoa.**

*IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko apirilaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, gizarte-enplegu babestuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko apirilaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariak ahoz erantzun dezan:

Gizarte-enplegu babestuari buruzko galdera.

Zergatik ez da prestazio bermatutzat hartzen gizarte-enplegu babestua?

Iruñean, 2009ko apirilaren 28an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

## **Galdera, jakiteko ea noiz izanen duen prest Nafarroako Gobernuak Azpiegiturei, Garraioei eta Komunikazioei buruzko Plan Estrategikoa.**

*JOSÉ MARÍA VÁZQUEZ ROYO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko apirilaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José María Vázquez Royo jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko ea noiz izanen duen prest Nafarroako Gobernuak Azpiegiturei, Garraioei eta Komunikazioei buruzko Plan Estrategikoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko apirilaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José M<sup>a</sup> Vázquez Royok, Legebiltzarreko Erregelamenduko 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Foru Komunitatean hurrengo urteetan egin beharreko azpiegitura-garapenaren esparruan era arrazionalen eta koordinatuan aurrera egitearren, nahitaezkoa da Nafarroako Gobernuaren departamentuek gauzatu beharreko jarduketan plangintza egitea.

Kontuan hartuz Errepideei buruzko II. plan zuzendaria gutxi barru dela amaitzekoa eta gainerako planak sakabanatuta daudela, beharrezkoa da hori ordenatzea eta arrazionalizatzea; lehentasun-mailak zehaztu behar dira, maila horiek ezarri beharra baitago azpiegituren garapena iraunkorra eta efizientea izan dadin.

Hori guztia helburu, PSN-PSOEk mozio bat aurkeztu zuen Nafarroako Parlamentuaren Osoko bilkuran. Haren bidez, Nafarroako Gobernua premiatu zen azpiegitura, garraio eta komunikazioen foru plan estrategikoa presta dezan, balio dezan koordinatzeko, erlazionatzeko eta planifikatzeko Nafarroako Gobernuaren departamentuek hurrengo urteetan izanen dituzten azpiegitura-proiektuen eta -jarduketan exekuzioa, bai eta departamentuok hurrengo urteetan garraioaren eta komunikazioaren arloan izanen dituzten politiken exekuzioa ere. Osoko Bilkuran aho batez onetsi zuen mozioa.

Denbora luzea iragan den arren, Nafarroako Gobernuak ez du onetsitako plan hori igorri Parla-mentura, eta, horrenbestez, PSN-PSOEek ondokoa jakin nahi du:

Noiz izanen du prest Nafarroako Gobernuak Azpiegiturei, Garraioei eta Komunikazioei buruzko

Plan Estrategikoa? Noiz aurkeztuko du Parlamen-tuan, Legebiltzarreko taldeek aho batez onetsitako aginduarekin bat?

Iruñean, 2009ko apirilaren 28an

Foru parlamentaria: José M.<sup>a</sup> Vázquez Royo

## **Galdera, gobernuaren kontrol eraginkor eta egiazkoa egite aldera parla-mentariei informazioa emateko betebeharra betetzearen arloko politi-ka orokorrari buruzkoa.**

### *PATXI ZABALETA ZABALETA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko apirilaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkeztutako galdera, gobernuaren kontrol eraginkor eta egiazkoa egite aldera parla-mentariei informazioa emateko betebeharra bete-tzearen arloko politika orokorrari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziale-an argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko apirilaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak, Legebiltzarreko Erregelamen-duaren 186. artikulua eta hurrengo babese-an, honako jabeldura hau aurkeztu dio Nafarroako Gobernuko lehendakariorde eta Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilari Caballero jaunari, Osoko Bilkuran eztabaida dadin:

Zioak:

Nafarroako Gobernuak eta, bereziki, kontseilari eta enpresa publiko batzuek uko egiten diote legez eskatutako informazioa emateari; are gehia-go, zenbait jarrerak erakusten dute ez dituztela aintzat hartzen legebiltzar honetako zerbitzu juridi-koen ondorioak –txosten batean–. Horrek arazoak sortzen ditu eta, beste neurri batzuk hartu aurretik –beharrezkoak badira hartuko dira–, ezinbestekoa da Gobernuak erantzun politiko bat ematea arazo larri honi; izan ere, Parla-mentuaren funtzionamen-du demokratikoari eragiten dio, bai eta kudeaketa publikoaren gardentasunari eta arau instituziona-len errespetuari ere.

Horren ondorioz, eginiko galdera ezin da mugatu Gobernuaren eta Parla-mentuaren arteko harremanen kudeaketara; aldiz, erabat lotuta dago legebiltzarrak lehendakariarenganako duen konfi-antzarekin; hori dela eta, egokia dirudi jabeldura lehendakariordeari eta Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilari Caballero jaunari aurkez-tea.

Horrenbestez, foru parlamentari honek jabel-dura aurkeztu du, Gobernuaren kontrol eraginkor eta egiazkoa egite aldera parla-mentariei informa-zioa emateko betebeharra betetzearen arloko poli-tika orokorrari buruz.

Iruñean, 2009ko apirilaren 27an

Foru parlamentaria: Patxi Zabaleta Zabaleta



## **Galdera, 2002-2009 urteetarako Nafarroako Errepideei buruzko II. Plan Zuzendariaren exekuzioa dela-eta Nafarroako Gobernuak egiten duen azterketari buruzkoa.**

*TXENTXO JIMÉNEZ HERVAS JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko apirilaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Txentxo Jiménez Hervas jaunak aurkeztutako galdera, 2002-2009 urteetarako Nafarroako Errepideei buruzko II. Plan Zuzendariaren exekuzioa dela-eta Nafarroako Gobernuak egiten duen azterketari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko apirilaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko Txentxo Jiménez Hervas jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 186. artikulua eta hurrengo babesean, honako jabeldura hau aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran eztabaida dadin:

Zioak:

Hilabete gutxi falta dira Nafarroako Errepideei buruzko II. Plana amaitzeko. Plan horren bidez bete da azken 8 urteotan Parlamentuaren agindua, eta bertan 150 jarduera jasotzen ziren. Arrazoizkoa dirudi aipatu planari buruzko eztabaida egitea Parlamentuan Errepideei buruzko III. Planaren gaineko eztabaidari heldu aurretik.

Hori dela eta, parlamentari honek jabeldura aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari amaitzear dagoen 2002-2009 Urteetarako Nafarroako Errepideei buruzko II. Plan Zuzendariaren exekuzioa dela-eta, jakiteko Nafarroako Gobernuak zer azterketa egiten duen. Jakin nahiko nuke zein den aurreikusitako 150 jardueren betetze-maila orokorra, eta plana amaitutakoan zein egoeratan geratuko diren bete ez diren jarduerak. Halaber, jakin nahiko nuke zein den errepideen egoera orokorra, 8 urteko jardunaren ostean.

Iruñean, 2009ko apirilaren 28an

Foru parlamentaria: Txentxo Jiménez Hervas

## **Galdera, nekazari gazteen lehen instalaziorako laguntzak 2009ko aurrekontuko zer kontusaili egotziko zaizkion jakitekoa.**

*AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko apirilaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, nekazari gazteen lehen instalaziorako laguntzak 2009ko aurrekontuko zer kontusaili egotziko zaizkion jakitekoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko apirilaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Gobernuak, 2009-04-21eko bilkuran, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariari baimena eman zion urte anitzeko gastu bat, 1.190.920 eurokoa, konprometitzeko, nekazaritza gazteen lehen instalaziorako laguntzak emateko.

Hona zenbateko hori nola banatzen den: 647.123 euro 2009ko aurrekontuen kargura, eta gainontzekoa, 543.797 euro, 2011ko kontuen kargura.

Hori dela-eta, foru parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Zer kontusailen kargura emanen da 2009an 647.123 euroko laguntza?

Iruñean, 2009ko apirilaren 27an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

---

**Galdera, “Ubarmin Klinikako operazio-gelak berritzeko obrak” izeneko kontusailaren betetze mailari buruzkoa.**

**ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko apirilaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, “Ubarmin Klinikako operazio-gelak berritzeko obrak” izeneko kontusailaren betetze mailari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko apirilaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin

du, Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuak idatziz erantzuteko:

Nafarroako Parlamentuak 2009ko ekitaldirako onetsitako aurrekontuan 1.600.000 euroko ondoko kontusaila ageri da Ubarmin Klinika-544. programan: Nafarroa 2012 Plana. Operazio-gelak berritzeko obrak. Galdera hauei erantzutea nahi dut:

Zertan dira operazio-gelak berritzeko obrak?

Aurrekontu-akordioaren arabera azkartasunez ari dira egiten obra horiek?

2009ko obra honetan, ba al dago asmorik X izpiak eta laborategia handitzeko?

1. eta 2. solairuei dagokienez, itxita jarraituko dute ala zerbaiterako erabiliko dira?

Galdera horiek erantzutean nahi adina luzatzea nahiko nuke, klinika horretara egindako bisitan izandako ikuspegia zabaltze aldera.

Iruñean, 2009ko apirilaren 27an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

## **Galdera, Tuterako Atalaya zentroaren kudeaketarako kontratu publikoaren agindu tekniko partikularren agiriari buruzkoa.**

**ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko apirilaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, Tuterako Atalaya zentroaren kudeaketarako kontratu publikoaren agindu tekniko partikularren agiriari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko apirilaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuko Gizarte Gaietako Departamentuak idatziz erantzuteko:

Tuterako Atalaya zentroaren kudeaketarako kontratu publikoaren agindu tekniko partikularren agiriak zentro horretan bizi diren pertsonekin esku hartzeko zenbait programa jasotzen ditu. Laguntza mediko-sanitarioaren programak berariazko zenbait arlo ditu.

Parlamentari honek informazio bat darabil, eta Nafarroako Gobernuko Gizarte Gaietarako Departamentuarekin egiaztatu nahi du.

2008an, ez zuten kontratatu zenbait profesional laguntza-zerbitzuak emateko, eta beste zen-

bait kasutan desagertu egin dira ematen ziren zerbitzuak.

2008

Kategoria	Berlaratu gabeko orduak
Logopeda	1094,8
OLT	105
OLT jai-egunak	205
Gidaria	347
Gidariaren laguntzailea	347
Ebro II, gaueko zaintzailea	1840
Psikiatra, 4 hilabete	36

Taula horretan jasotakoa errepikatu egiten da, 2009an iragan den denboraren zati proportzionalan.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

– Gizarte Gaietarako Departamentuak ba al du Atalaya zentroan egon diren errehabilitazio programen eta orduen galeraren berri?

– Ba al dago asmorik konponbidea jartzeko 2008an eta 2009an, orain artean, profesionalik kontratatu ez izanari?

– Langile horiek ez kontratatzean gastatu gabe gelditu den dirua nora joan da?

Gizarte Gaietarako Departamentuak hartu al du edo hartuko al du inolako neurririk, Tuterako Atalaya zentroaren kudeaketarako kontratu publikoaren agindu tekniko partikularren agiriak ezarritakoa bete ez dela ikusita?

Iruñean, 2009ko apirilaren 27an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

## **Galdera, nekazaritzako lurak basoberritzera bideratzen den diruari buruzkoa.**

*AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko apirilaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, nekazaritzako lurak basoberritzera bideratzen den diruari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko apirilaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Gobernuak 6.806.455 euroko urte anitzeko gastua konprometituko du 2010etik 2016ra bitarte nekazaritzako lurak basoberritzeko. Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

– Zenbat dirurekin konpentsatuko du Nafarroako Gobernuak urtez urte kontusail hori? Zehaztu, urtearen eta zenbatekoaren arabera.

Iruñean, 2009ko apirilaren 28an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

## **Galdera, oinarrizko errentaren izapidetzeari buruzkoa.**

*IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko apirilaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, oinarrizko errentaren izapidetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko apirilaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Oinarrizko errenta izapidetzeari buruzko galdera

1. Zenbat denbora igarotzen da, gaur egun, pertsona batek oinarrizko errenta eskatzen duenetik jasotzen duen arte?

2. Eskabideak nabarmen igo direla ikusita, indartu al da gizarteratze-zerbitzua profesional gehiagorekin, horrela oinarrizko errentaren izapidea azkartzeko?

Iruñean, 2009ko apirilaren 28an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

## **Galdera, oinarrizko errentaren kontusaileko azken gastuari buruzkoa.**

### *IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko apirilaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, oinarrizko errentaren kontusaileko azken gastuari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko apirilaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Oinarrizko errentaren kontusaileko azken gastuari buruzko galdera.

“Bizibiderik gabeko familia nafarrentzako laguntzak” izeneko kontusaila handitu ondotik, zenbat gastatu zen, azkenik, prestazio horretan?

Noiz eta zenbat alditan egin ziren kontusail horren kreditu-gehikuntzak?

Iruñean, 2009ko apirilaren 28an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre





